**SEGURTASUN SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen
Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**
Viceconsejería de Administración
y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

**EBAZPENA, 2021EKO EKAINAREN 08KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ERTZAINTZAREN LEHENENGO ETA BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNERAKO HIZKUNTZA GAITASUN IKASTARO TRINKOEN 2021EKO DEIALDIA EGITEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DE 08 DE JUNIO DE 2021, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS POR LA QUE SE CONVOCAN CURSOS INTENSIVOS DE CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA EN EL PRIMER Y SEGUNDO PERFIL LINGÜÍSTICO DE LA ERTZAINTZA PARA EL AÑO 2021.**

Urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuak, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioa onartzen duenak, 67. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baita Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izena duen P02230-6.0 prozedurarekin bat etorriz ere, eta urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera niri dagozkidan eskumenak gauzatuz, honako hau

De conformidad con las previsiones del artículo 67 del Decreto 4/2012, de 17 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza y el procedimiento P02230-6.0, sobre acceso a formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 12 del Decreto 6/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**LEHENENGOA.-** 2021eko hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoen deialdia egitea Ertzaintzaren karrerako funtzionarioentzat, zerbitzu aktiboko egoeran edo bigarren jarduera egoeran daudenean.

**PRIMERO.-** Convocar cursos intensivos de capacitación lingüística para el año 2021 dirigidos a personal funcionario de carrera de la Ertzaintza, en las situaciones administrativas de servicio activo y segunda actividad.

**BIGARRENA.-** Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izeneko P02230-6.0 prozeduraren bitartez arautzen diren hurrengo ikastaro hauek antolatuko dira:

**SEGUNDO.-** Los cursos objeto de la presente convocatoria, que se rigen por el procedimiento P02230-6.0, sobre Acceso a formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, son los siguientes:

1.- Ertzaintzaren lehenengo hizkuntza eskakizunerako hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoaren 2021eko bigarren edizioa, **1. eranskinean** ageri diren ezaugarriei jarraiki.

1.- Segunda edición de 2021 del curso intensivo de capacitación lingüística en el primer perfil lingüístico de la Ertzaintza, con arreglo a las especificaciones que constan en el **anexo 1**.

2.- Ertzaintzaren bigarren hizkuntza eskakizunerako 2021eko hizkuntza gaitasun ikastaro trinkoa, **2. eranskinean** ageri diren ezaugarriei jarraiki.

2.- Curso intensivo de capacitación lingüística en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza de 2021, con arreglo a las especificaciones que constan en el **anexo 2**.

Ikasgelek gaur egungo osasun-krisiaren ondorioz ezarritako edukiera mugatua izaten jarraituko dutela aurreikusten da, eta, beraz, inguruabar horrek ikasle-kopurua baldintzatu dezake.

Previsiblemente, los espacios docentes permanecerán con el aforo limitado establecido como consecuencia de la situación actual de crisis sanitaria, de modo que el número de alumnado se puede ver condicionado por esta circunstancia.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau eman den datararte aurkeztutako eskaerak aintzat hartuko dira. Hala ere, ertzainek beti izango dute ezarritako epe berri honetan aurkeztutako eskariari uko egiteko aukera.

**TERCERO.-** Se tomarán en consideración las solicitudes de participación al curso presentadas hasta la fecha, sin perjuicio de su derecho a desistir del mismo dentro del plazo establecido al efecto.

**LAUGARRENA.-** 1.- Giza Baliabideen zuzendariak eskabideei buruzko ebazpena emango du eta, onespena ematekotan, beharrezko baimenak ere emango ditu.

2.- Ikastaroetan parte hartzeari buruzko araubidea Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioaren 49. artikuluan ezarritakoa da.

3.- Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak direla eta, urtarrilaren 17ko 5/2012 Dekretuaren 20.1.c) eta 4. artikuluak aplikatuko dira, Ertzaintzaren erakunde sindikalak diren ErNEk eta ELAk

**CUARTO.-** 1.- La Directora de Recursos Humanos resolverá sobre las solicitudes y en caso de ser estimatorias autorizará los permisos correspondientes.

2.- El régimen de participación en los cursos será el establecido en el artículo 49 del Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza.

3.- En cuanto a las indemnizaciones por razón de servicio, se aplicará el artículo 20.1.c) y 4 del Decreto 5/2012, de 17 de enero, en su relación con el Acuerdo suscrito el 09 de marzo de 1999 entre la organizaciones

1999ko martxoaren 9an Herrizaingo Sailarekin sinatu zuten Akordioarekin lotuta. Akordio hori, hain zuzen ere, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren VI. kapituluak aipatzen dituen hizkuntza gaitasunerako ikastaroen gainekoa da.

sindicales de la Ertzaintza, ErNE y ELA con el Departamento de Interior en relación con los cursos de capacitación lingüística previstos en el Capítulo VI del Decreto 30/1998 de 24 de febrero.

Bizilekuaren eta ikastaroa ematen den tokiaren arteko distantzia haren eta zerbitzua ematen den lantokiaren artean dagoena baino handiagoa bada, kilometro-gastua bi distantzien arteko aldeagatik konpentsatu ahalko zaie ertzainei benetan ikastarora joandako egunetan.

En aquellos supuestos en que la distancia entre el domicilio y el centro de impartición del curso fuera superior a la distancia entre aquél y el centro de trabajo en que se viniera prestando servicio, el/la ertzaina tendrá derecho a la compensación del gasto de kilometraje por la diferencia todas las jornadas en que se produzca la asistencia efectiva al curso.

4.- Ertzaintzako funtzionarioak jatorri-unitateen esanetara geratuko dira, dagokion plangintzaren arabera, edozein arrazoi dela-eta lau egun edo gehiago jarraian eskolarik ez dagoen edo etenaldia egiten den egunetan. Edonola ere, langileek bi atseden-egun hartzeko eskubidea izango dute ikastaroko bi asteren artean.

4.- Cuando coincidieran cuatro o más días consecutivos en que no hubiera clase, el personal se reincorporará a la planificación de su grupo de trabajo desde el primero de ellos hasta la víspera al reinicio del curso, ambos incluidos. En todo caso, el personal tendrá derecho al disfrute de dos jornadas de descanso entre dos semanas de curso.

**BOSGARRENA.-** Oporrak hartzeari dagokionez, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duen urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuaren 30. artikuluko 2. ataleko 2.1 azpiatala aplikatuko da.

**QUINTO.-** A efectos de disfrute de vacaciones, será de aplicación el artículo 30 apartado 2 subapartado 2.1 del Decreto 4/2012, de 17 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza.

**SEIGARRENA.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta interesdunek haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar diezaiokete Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena argitaratzen denetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015

**SEXTO.-** Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrán los/as interesados/as interponer conforme a lo previsto en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un

**SEGURTASUN SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Esandakoa jakitera ematen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikulua betez.

mes a partir de la publicación de la presente resolución, lo que se comunica en cumplimiento de lo establecido en el art. 40 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Erandio, 2021eko ekainaren 08a.

**Izpta.: IZASKUN URIEN AZPITARTE**
**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**



Donostia-San Sebastian,1 01010 VITORIA-GASTEIZ

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ERTZAINTZAN

# 1. Eranskina

**Ertzaintzaren lehen hizkuntza eskakizunerako hizkuntza gaitasun ikastaroaren 2021eko bigarren edizioaren deialdia.**
**Egunero 6 orduko ikastaro trinkoa.**

## 1. Ikastaroaren ezaugarriak.

- Tokia: Arkauti-Erandio–Oiartzun-Iurreta, antolatu ahal diren taldeen arabera.
- Iraupena: 2021eko azaroaren 30etik 2022ko maiatzaren 6ra (biak barne).
- Eskolarik gabe: 2021eko abenduaren 6tik 8ra (biak barne), 2021eko abenduaren 24tik 31ra (biak barne), 2022ko urtarrilaren 6a eta 7a, 2022ko apirilaren 14tik 22ra (biak barne), 2022ko apirilaren 28a eta 29a.
- Ordutegia: 08:00etatik 14:30era. (egunero sei orduko ikastaro trinkoa).
- Ikastaroa ematea: PLEA.
- Ikastaroa eskatzea: P02230-6.0 prozedura jarraituz S140-6 eskaera bete eta igorri.
- **Eskaera aurkezteko azken eguna:** 2021eko uztailaren 05a.

## 2. Sarrera baldintzak.

a. Ezinbesteko baldintzak:

- Zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako egoera administratiboan egon eta Ertzaintzan benetako zerbitzuan dagoen langilea izatea.
- Eskabidea aurkeztu aurreko azken hiru urteetan B1 maila egiaztatu izana.
- Ordu kreditua izatea.

b. Lehentasunaren araberako hautaketa irizpideak:

- Lehentasun handiagoa duen unitatean lan egitea, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planak ezartzen dituenaren arabera.

**Convocatoria de la segunda edición de 2021 del curso de capacitación lingüística en el primer perfil lingüístico de la Ertzaintza.**
**Curso intensivo de 6 horas diarias.**

## 1. Características de curso.

- Lugar: Arkaute-Erandio-Oiartzun-Iurreta, en función de los grupos que se puedan organizar.
- Duración: De 30 de noviembre de 2021 a 6 de mayo de 2022 (ambos incluidos).
- Período no lectivo: del 6 al 8 de diciembre de 2021 (ambos incluidos), del 24 al 31 de diciembre del 2021 (ambos incluidos), 6 y 7 de enero de 2022, del 14 al 22 de abril de 2022 (ambos incluidos), el 28 y 29 de abril de 2022.
- Horario: de 08:00 a 14:30. (intensivo de seis horas al día)
- Impartición: AVPE.
- Solicitud del curso: Siguiendo el procedimiento P02230-6.0, rellenar y entregar la solicitud S140-6.
- **Plazo de solicitud:** Finaliza el 05 de julio de 2021.

## 2. Condiciones de acceso.

a. Requisitos imprescindibles:

- Ser personal en la situación administrativa de servicio activo o segunda actividad y que esté en servicio efectivo en la Ertzaintza.
- Haber acreditado el nivel B1 en los últimos tres años anteriores a la solicitud.
- Contar con crédito horario suficiente.

b. Criterios de selección por orden de preferencia:

- Tener por destino en una unidad de mayor prioridad en base a lo dispuesto el II Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Ertzaintza.

- Gazteagoa izatea. (30/98 Dekretuak, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duenak, 8. artikuluan, derrigortasun datak jartzeko irizpideen artean titularraren gaztetasuna eta lanpostuan denbora gutxiago eramatea kontuan hartzen ditu)

- Tener menor edad. (El artículo 8 del Decreto 30/1998, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza establece como criterios para atribuir la fecha de preceptividad la menor edad del titular de la dotación y la menor antigüedad)

**3. Konpromisoa.**

- Ikastaroa bukatu ondoren Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizunaren edota horren baliokidetza duten azterketetara aurkeztea.

**3. Compromiso.**

- Una vez finalizado el curso, presentarse a las pruebas oficiales de acreditación del 1º perfil lingüístico de la Ertzaintza o equivalente.

**4. Lan premiak.**

- Liberazioak polizia unitateek une oro dituzten lan premien arabera emango dira.

**4. Necesidades de servicio.**

- Las liberaciones estarán supeditadas a las necesidades de servicio que en cada momento requieran las unidades policiales.

**SEGURTASUN SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

# 2. Eranskina

**Ertzaintzaren bigarren hizkuntza eskakizunerako 2021eko hizkuntza gaitasun ikastaroaren deialdia. Egunero 6 orduko trinkoa.**

## 1. Ikastaroaren ezaugarriak.

- Tokia: Arkauti-Erandio–Oiartzun-Iurreta, antolatu ahal diren taldeen arabera.
- Iraupena: Bost hilabetekoa (gehienez 700 ikastordu). 2021eko urriaren 27tik 2022ko maiatzaren 6ra (biak barne).
- Eskolarik gabe: 2021eko azaroaren 1a, 2021eko abenduaren 6tik 8ra (biak barne), 2021eko abenduaren 24tik 31ra (biak barne), 2022ko urtarrilaren 6a eta 7a, 2022ko apirilaren 14tik 22ra (biak barne), 2022ko apirilaren 28 eta 29a.
- Ordutegia: 08:00etatik 14:30era. (egunero sei orduko ikastaro trinkoa).
- Ikastaroa ematea: PLEA.
- Ikastaroa eskatzea: Jabedun lanpostuan ala betetzen duten lanpostuan 2. HE esleituta duten ertzainek S140-6 eskaera bete eta igorri beharko dute. Beste guztiek P02230-6.0 prozedura jarraituz S140-6 eskaera bete eta igorri.
- **Eskaera aurkezteko azken eguna:** 2021eko uztailaren 05a.

## 2. Sarrera baldintzak.

a. Ezinbesteko baldintzak:

- Zerbitzu aktiboko edo bigarren jarduerako egoera administratiboan egon eta Ertzaintzan benetako zerbitzuan dagoen langilea izatea.
- Ertzaintzaren 1.HE edo baliokidea izatea eta Ertzaintzaren 2.HE edo baliokidea ez izatea.
- Lanpostuak Ertzaintzaren 1.HE ezarrita badu, eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan egiaztatu izana edo eskabidea aurkeztu aurreko azken hiru urteetan urrats bat gutxienez gainditzea lanorduz kanpo (B2.2. azpimaila behintzat), euskaltegi homologatuetan.
- Ordu kreditua izatea.

**Convocatoria del 2021 al curso de capacitación lingüística en el segundo perfil lingüístico de la Ertzaintza. Curso intensivo de 6 horas.**

## 1. Características de curso.

- Lugar: Arkaute-Erandio-Oiartzun-Iurreta, en función de los grupos que se puedan organizar.
- Duración: cinco meses (máximo de 700 horas lectivas). De 27 de octubre de 2021 a 6 de mayo de 2022 (ambos incluidos).
- Período no lectivo: el 1 de noviembre de 2021, del 6 al 8 de diciembre de 2021 (ambos incluidos), del 24 al 31 de diciembre del 2021 (ambos incluidos), 6 y 7 de enero de 2022, del 14 al 22 de abril de 2022 (ambos incluidos), el 28 y 29 de abril de 2022.
- Horario: de 08:00 a 14:30. (intensivo de seis horas al día)
- Impartición: AVPE.
- Solicitud del curso: Los/as ertzainas que cuenten con PL2 en su plaza en propiedad o en el puesto que ocupan deberán rellenar y entregar la solicitud S140-6. Y el resto, siguiendo el procedimiento P02230-6.0 rellenar y entregar la solicitud S140-6.
- **Plazo de solicitud:** Finaliza el 05 de julio de 2021.

## 2. Condiciones de acceso.

a. Requisitos imprescindibles:

- Ser personal en la situación administrativa de servicio activo o segunda actividad y que esté en servicio efectivo en la Ertzaintza.
- Contar con el PL1 de la Ertzaintza o equivalente y no haber acreditado el PL2 de la Ertzaintza o equivalente.
- En caso de que el puesto tenga asignado el PL1 de la Ertzaintza, haberlo acreditado en los tres últimos años anteriores a la solicitud o haber superado al menos el subnivel B2.2 de euskera en centros homologados y fuera del horario laboral en los tres últimos años anteriores a la solicitud.

- Contar con crédito horario suficiente.

b. Lehentasunaren araberako hautaketa irizpideak:

- Lanpostuak 2.HE derrigortasun datarekin izatea.
- Jarduneko lanpostuak derrigortasun datarik gabeko 2.HE izatea.
- Jabedun lanpostuak derrigortasun datarik gabeko 2.HE izatea.
- Lehentasun handiagoa duen unitatean lan egitea, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planak ezartzen dituenaren arabera.
- Gazteagoa izatea. (30/98 Dekretuak, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duenak, 8. artikuluan, derrigortasun datak jartzeko irizpideen artean titularraren gaztetasuna eta lanpostuan denbora gutxiago eramatea kontuan hartzen ditu)

b. Criterios de selección por orden de preferencia:

- Contar en el puesto con PL2 con fecha de preceptividad.
- Que el puesto que ocupa tenga PL2 sin fecha de preceptividad.
- Que el puesto en propiedad tenga PL2 sin fecha de preceptividad.
- Tener por destino en una unidad de mayor prioridad en base a lo dispuesto el II Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Ertzaintza.
- Tener menor edad. (El artículo 8 del Decreto 30/1998, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza establece como criterios para atribuir la fecha de preceptividad la menor edad del titular de la dotación y la menor antigüedad)

3. **Konpromisoa.**

- Ikastaroa bukatu ondoren Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizunaren edota horren baliokidetza duten azterketetara aurkeztea.

3. **Compromiso.**

- Una vez finalizado el curso, presentarse a las pruebas oficiales de acreditación del 2º perfil lingüístico de la Ertzaintza o equivalente.

4. **Lan premiak.**

- Liberazioak polizia unitateek une oro dituzten lan premien arabera emango dira.

4. **Necesidades de servicio.**

- Las liberaciones estarán supeditadas a las necesidades de servicio que en cada momento requieran las unidades policiales.

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**SEGURTASUN SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

**S140/6**

# LANORDUETAN EUSKARA IKASTEKO ESKABIDEA
SOLICITUD DE ACCESO A FORMACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA DENTRO DEL HORARIO LABORAL

| ***Funtzionarioaren datuak*** *Datos del/de la funcionario/a* | | ***Espediente zk.*** |
|---|---|---|
| ***Abizenak*** *Apellidos* | | ***Izena*** *Nombre* |
| ***NAN*** *D.N.I.* | ***Zentroa*** *Centro* | ***Langile Identifikazio Zenbakia*** *Nº de Identificación Personal* |

| ***Ertzaintzaren 1.HE gaindituta*** *Acreditado PL-1 Ertzaintza* | ☐ *Bai* | ☐ *Ez* |
|---|---|---|

| ***Lanorduetatik kanpo gainditutako euskara maila/k, urtea eta non*** *Nivel/es superados fuera del horario laboral, año y lugar* | ***Mailak/****Niveles* | ***Urtea****/Año* | ***Non****/Lugar* |
|---|---|---|---|

| ***Aurretik liberatua egon zara? Noiz*** *Ha sido liberado anteriormente? Cuándo* | ☐ *Bai.* ***Noiz (urtea)*** */ Cuándo (año) ……. (****Bigarren liberazioak gehienez 2 hilabete, 280 ikastordukoak dira*** */ Las segundas liberaciones son de un máximo de 2 meses, 280 horas lectivas)*<br>☐ *Ez.* |
|---|---|

| ***Eskatutako liberazio epea*** *Plazo de liberación solicitado* | ***1. HE prestatzeko /*** *Para preparar el PL1. (****4 hilabete, 560 ikastordu gehienez*** */ máximo de 4 meses, 560 horas lectivas)*<br>☐ ***1. edizioa (apirila-urria artean*** */ entre abril-octubre)*<br>☐ ***2. edizioa (azaroa-apirila artean*** */ entre noviembre-abril)*<br>***2. HE prestatzeko /*** *Para prepararse para el PL2. (****5 hilabete, 700 ikastordu gehienez)*** */ máximo de 5 meses, 700 horas lectivas)*<br>☐ ***Ikastaro trinkoa*** */ curso intensivo (****urria-apirila artean*** */ entre octubre-abril).* |
|---|---|

***Adierazi ikastaroa non egin nahi duzun. Leku bat baino gehiago aukeratu nahi baduzu, adierazi zure lehentasunak, 1 lehentasun handiena izanik eta 4, txikiena:***
*Indique el lugar que desee para la impartición del curso. Si tuviera más de una opción, indique su preferencia, siendo el 1 el de mayor preferencia y el 4, el de menor:*

| ***Tokia*** *Lugar* | ☐ ***Arkaute*** | ☐ ***Erandio*** | ☐ ***Oiartzun*** | ☐ ***Iurreta*** |
|---|---|---|---|---|

| ***Interesdunaren izenpea*** *Firma del interesado/a*<br><br>***Data****/Fecha……………****LZ****/NP………........* | ***Unitate Burutza /*** *Jefatura de Unidad*<br>☐ ***Aldekoa*** */ Favorable*<br>☐ ***Kontrakoa (1)*** */ Desfavorable (1)*<br>***Data****/Fecha……………****LZ****/NP………........* |
|---|---|

***(1) Liberazioa hurrengo ediziora geroratzekotan, adierazi zein diren arrazoiak, nagusiaren iritziz***
*(1) Razones que justifican el aplazamiento de la liberación a la siguiente edición a juicio del superior/a*

**OHARPENA: Datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritzak datuen tratamenduaren berri ematen du eta horretarako zein datuak bere fitxategietan sartzeko berariazko baimena eskatzen du; datuak galdetu diren helbururako baino ez dira erabiliko. Halaber, baimena eskatzen du langilearen ikas-prozesuaren garapen eta kudeaketatik eratorritako datuak HABEri zein ikasketa-zentro homologatuei eskatzeko, eta euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko proben emaitzak erakunde egiaztatzaileei eskatzeko eta horiek guztiak aipatutako fitxategi automatizatuetan gordetzeko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko ("ahaztua izateko"), deuseztatzeko, eramateko, mugatzeko edo aurkaratzeko eskubideak erabili nahi izanez gero, datuen tratamenduaren arduradunarengana jo dezakezu: Segurtasun Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritza. Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Eskabide honen sinaduraren bidez berariazko baimena ematen dut, datuen tratamendua egiteko.**
ADVERTENCIA: Conforme a la normativa vigente en materia de protección de datos, la Dirección de Recursos Humanos informa y solicita autorización expresa para realizar /lael tratamiento de datos y la inclusión de los mismos en sus ficheros, siendo utilizados con la única finalidad para la que han sido recabados, así como autorización para solicitar a HABE y a los centros de estudios homologados los datos resultantes del desarrollo y gestión de su proceso de aprendizaje, y a las entidades acreditadoras los resultados de las pruebas de acreditación de niveles de conocimiento de euskera, y que todo ello se incorpore a los ficheros automatizados citados. Los derechos de acceso, rectificación, supresión ("el derecho al olvido"), cancelación, portabilidad, limitación u oposición, pueden ejercitarse ante el/la responsable del tratamiento: Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Seguridad, con domicilio en C/ Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Sirva la firma de la presente solicitud como consentimiento expreso para el tratamiento de los datos.